

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Diputatuen kontseiluak onartzen duen egunetik bertatik aurrera izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 5a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Nekazaritza Saileko foru diputatua, ELOY LÓPEZ DE FORONDA ORTÍZ DE URBINA.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

2.959

334/2004 ERABAKIA, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Erenchungo Administrazio Batzarraren kide kudeatzailea izendatzen da.

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Erenchungo Administrazio Batzarrean bertako kide batek bere karguari uko egin diolako.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Bokalak Hautatzeko Foru Arauak 18 eta 21. artikuluan eta Arabako administrazio batzarretako batzorde eta bokal kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta funtzionamenduari buruzko arauak eman zituen Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/85 Erabakiak 2. paragrafoan xedatutakoaren ildotik, egoki da administrazio batzar horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, bokal kudeatzailea izendatzea hauteskundeak egin arte.

Toki Administrazioaren Sailari dagokio, besteak beste, administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egitea. Beraz, horren arabera ulertzen da foru aldundiak pertsonak proposatzea kargu horietarako.

Horregatik guztiarengatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egingadako bileran aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

Lehen.- Erenchungo Administrazio Batzarreko bokal kudeatzaile izendatzea Iker de la Llera González de Durana jauna.

Bigarren.- Martxoaren 26ko 829/85 Erabakiak bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, aipatutako bokal kudeatzailea erregidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen aparteko bilkura batean jabetuko da karguarekin. Bilkura hori erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baldiodunen barruan egingo da.

Bilkura horretako akta bilkura egin eta hurrengo hiru egun baldiodunen barruan bidaliko zaio foru aldundiari.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 5a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Toki Administrazioaren Saileko foru diputatua, ISABEL FERNÁNDEZ DE CASTILLO GONZÁLEZ.

Foru Aginduak

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

2.941

333/2004 FORU AGINDUA, apirilaren 21ekoa, Burgeluko udal planeamenduko ordezkari arauetako Añuako SAUR-1 sektoreko plan partzialari buruzko espedientea behin betiko onartzen duen espedientea behin betiko onartzen duena.

I.- AURREKARIAK

Hirigintza eta Ingurumen diputatuaren urtarrilaren 14ko 6/03 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen Burgeluko udal planeamenduko ordezkari arauetako Añuako SAUR-1 sektoreko plan partzialari buruzko espedientea.

Foru agindu horren betebeharrakotasuna aitortzeko, berriz, bertan zehaztutako aldaketak sartu behar izan ziren espedientearen.

2004ko martxoaren 12an Burgeluko Udalak espedientearen tesu bateratua igorri zuen foru aldundira, betearaztekoa zela aitortzeko.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

En presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su aprobación por el Consejo de Diputados.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2004.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado Foral de Agricultura, ELOY LÓPEZ DE FORONDA ORTÍZ DE URBINA.

Acuerdos del Consejo de Diputados

2.959

ACUERDO 334/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que designa Vocal Gestor de la Junta Administrativa de Erenchun.

La Junta Electoral del Territorio Histórico de Álava ha puesto en conocimiento de esta Diputación Foral la existencia de una vacante en la Junta Administrativa de Erenchun producida como consecuencia de la renuncia a su cargo de uno de sus miembros.

A la vista de lo anterior, procede, conforme a lo dispuesto en los artículos 18 y 21 de la Norma Foral de Elección de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava y apartado Segundo del Acuerdo de la Diputación Foral 829/85, de 26 de marzo, por el que se dictaron normas sobre el nombramiento, constitución y funcionamiento de Comisiones Gestoras y Vocales Gestores de las Juntas Administrativas de Álava, designar a la persona que, en calidad de Vocal Gestor, ocupe la vacante existente en la citada Junta Administrativa hasta la celebración de nuevas elecciones.

Se atribuye al Departamento de Administración Local, entre otros cometidos, el seguimiento del régimen electoral de las Juntas Administrativas, dentro del cual ha de comprenderse el de proponer las personas que nombre la Diputación Foral para ocupar tales cargos.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Administración Local, y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada en el día de la fecha,

ACUERDO:

Primero.- Designar Vocal Gestor de la Junta Administrativa de Erenchun a don Iker de la Llera González de Durana.

Segundo.- El citado Vocal Gestor, conforme a lo prevenido en el apartado Segundo del Acuerdo 829/85, de 26 de marzo, deberá tomar posesión de su cargo en sesión extraordinaria convocada al efecto por el Regidor-Presidente y que deberá celebrarse en el plazo de los siete días hábiles siguientes a aquél en el que se reciba la comunicación del presente Acuerdo.

Certificación del Acta de tal sesión deberá ser remitida, en el plazo de los tres días siguientes a la fecha de su celebración, a esta Diputación Foral.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2004.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- La Diputada de Administración Local, ISABEL FERNÁNDEZ DE CASTILLO GONZÁLEZ.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

2.941

ORDEN FORAL 333/2004, de 21 de abril, por la que se aprueba definitivamente el expediente por la que se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Añua de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.

I.- ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral número 6/03, de 14 de enero, del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobaba definitivamente el expediente expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Añua de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.

La ejecutoriedad de la citada Orden Foral, no obstante, quedaba condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 12 de marzo de 2004, el Ayuntamiento de Elburgo ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que fuera declarada la ejecutoriedad del mismo.

II.- OINARRIAK

Igorritako agiriak aztertu dira eta egiaztatu da foru aginduan xedatutakoa betetzen dutela. Hau da, agindu horrek zehaztutako aldatetarako jasotzen dituztela.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Urtarrilaren 14ko 6/2004 Foru Aginduan (Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuarena) ezarritako baldintzak betetzat ematea. Foru agindu horren bidez Burgeluko udal planeamenduko ordezkio arauetako Añuako SAUR-1 sektoreko plan partzialari buruzko espedientea behin betiko onartu zen.

Bigarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Hirugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, beronen aurka ondoko edozein errekurtsio jarri ahal izango da, baita interesdunek egoki deritzon beste edozein neurri abiara ere:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukerako berraztertze errekurtsioa interesdunek, edo errekerimendua administrazioek, foru agindu hau eman duen organoari. Errekurtsio edo errekerimendua horiek auzi-errekurtsioa aurkeztu aurretik aurkeztuko dira. Horietarako hilabete izango da honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko apirilaren 21a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIÁVILLA.

1.- ORDENANTZA ARAUTZAILEAK

1-1.- KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

1-1.1.- 1. ordenantza. Xedea, eremua, indarraldia eta ondorioak.

Ordenantza hauen xedea da Urbanizatzeko Egokia den Lurzoruaren Hirigintzako Araubidea antolatzea, eta antolatzea ere Burgeluko Udalerriko Ordezko Arauetan xedatutakoaren arabera.

Ordenantza hauek Añuako SAUR-1ean aplikatuko dira. Plan Partzialaren agiri grafiko eta idatzietan dator mugatuta esandako SAUR-1 hori.

Plan Partzial honen indarraldia mugagabea da, dagokion aldaketa izapidetu eta onartu bitartean.

Plan partzialak onartzen den unetik bertatik aurrera izango ditu ondorioak, eta plan partziala betetzen ez bada 1978ko Hirigintzako Diziplinari buruz indarrean dagoen Arautegian ezartzen den zigor-arauak aplikatuko dira.

1-1.2.- 2. ordenantza. Agiriak eta kontraesanak ebaztea.

Ordenantza hauetaz gain, Plan Partzialak honako agiriak hartzen ditu bere baitan: Plana Justifikatzeko Memoria, Azterlan ekonomikoa eta finantzariora, Urratsen Plana eta informazio eta antolamendu planoak. Agiri guztiek beharrezkoak dira baina ez maila berean.

Interpretazio teknikoan arazoak sortzen badira, Udaltzaren irizpideari emango zaio lehentasuna, hau da, denon interesa interes partikularren aurretik jartzeari.

1-1.3.- 3. ordenantza. Definizioak.

Definizio hauek Ordezko Arauetan zehaztutako enpenpe daude; kontraesanik izanez gero, Ordezko Arauetako definizioak nagusituko dira.

Lur gordina. Sektorean mugatuta egonik, plan partzial hau idazteko abiapuntutzat hartu den hasierako egoeran dagoen lurra.

Lur garbia. Sektoreko mugen barruan, behin espazio libreen, horniduren eta bideen sistemako nahitaezko lagapenak eginda, jabetzeko modukoa den lurra.

Lurzati-orubea. Lerrokadurek eta sestrek behar bezala zehaztutako lurra, Planean hirigintzako zerbitzu guztiak dituen eta, horrenbestez, berehala eraikitzeko gai dena.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación remitida se observa que la misma ha dado cumplimiento a lo dispuesto en la Orden Foral de aprobación definitiva, habiéndose recogido las modificaciones señaladas en la misma.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral número 6/04, de 14 de enero del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobaba definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Añua de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2004.- El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIÁVILLA.

1.- ORDENANZAS REGULADORAS

1-1.- CAPÍTULO I.- GENERALIDADES

1-1.1.- Ordenanza 1ª. Objeto, ámbito, vigencia y efectos.

Es objeto de las presentes Ordenanzas, la Regulación particular del Régimen Urbanístico del Suelo Apto para Urbanizar, de acuerdo con lo dispuesto en las Normas Subsidiarias del Planeamiento de Elburgo.

El ámbito de aplicación será el SAUR.1-AÑUA de Añua, delimitado según expresión gráfica y escrita que figura en la documentación del Plan Parcial.

El presente Plan Parcial tendrá vigencia indefinida, en tanto no se tramite y apruebe la correspondiente modificación.

Tendrá efectos inmediatos desde el mismo momento de su aprobación y su incumplimiento supondrá la aplicación de un régimen sancionador previsto en el vigente Reglamento de Disciplina Urbanística de 1.978.

1-1.2.- Ordenanza 2ª. Documentación, Resolución de contradicciones.

La documentación del Plan Parcial consta además de las presentes Ordenanzas reguladoras, de Memoria justificativa, Estudio Económico-Financiero, Plan de Etapas y Planos de información y ordenación, alcanzando todos y cada uno de ellos el grado de obligatoriedad correspondiente.

En caso de conflicto de interpretación técnica, prevalecerá el criterio de la Corporación Municipal, quien resolverá atendiendo al superior interés general sobre el particular.

1-1.3.- Ordenanza 3ª. Definiciones.

Las presentes definiciones quedan subordinadas a las definidas por las Normas Subsidiarias, las cuales prevalecerán en caso de contradicciones.

Suelo bruto. Se entiende por suelo bruto aquel que encontrándose delimitado en el Sector, se encuentra en el estado originario del que se ha partido para redactar el presente Plan Parcial.

Suelo Neto. Se entiende por suelo neto aquel que dentro de la delimitación del Sector resulta susceptible de apropiación, una vez realizadas las cesiones obligatorias de sistema de espacios libres, dotaciones y viales.

Parcela-solar. Se entiende por parcela-solar el suelo perfectamente determinado por alineaciones y rasantes y que dispone de todos los servicios urbanísticos en el Plan, apto por tanto para ser inmediatamente edificado.

Eraikigarritasuna. Arauan erabilera eta lurzoru bakoitzerako bereziki adierazitako koefizientea. Koefiziente hori lur gordinari aplikatzen zaio, gehienezko azalera eraikigarria zein den zehazteko. Erlazio hau erabiliz adierazten da: lur eraikigarriaren m² / lurzati gordinaren m².

Okupazioa. Planeko ordenantza partikularretan adierazitako koefizientea, lur garbiari aplikatuta, eraikuntzarekin okupa daitekeen lurzati-orubeko gehienezko azalera kalkulatzeko erabiltzen dena. Erlazio hau erabiliz adierazten da: lur eraikiaren m² / lurzati garbiaren m².

Gehienezko garaiera. Eraikuntzak bertikalean gehienez izan dezakeen luzera, luraren berezko sestratik azken solairu bizigarriko sabaiko forjaren golko alderaino neurtuta. Metrotan (m) adierazten da.

Solairuak. Estalkiaz gain, jarduera bat aurrera eramateko egokitu den azalera horizontal erabilgarri oro da.

Ordezko Arauek solairu mota hauek bereizten dituzte, eraikinean duten kokalekuaren arabera:

Sotoa: eraikitako azalaren ehuneko berrogeita hamar (%50) baino gehiago espaloien edo luraren sestraren azpitik duena da sotoa solairua.

Garaiera librea gutxienez 240 cm-koa izango da; era berean, beheko solairuaren garaiera gutxienez 265 cm-koa izango da, eta, egiturako zintzilduretan, 210 cm-koa.

Erdisotoa: eraikitako azalaren ehuneko berrogeita hamar (%50) baino gehiagoren zoruko plano lurraren berezko sestraren kotaren azpitik eta sabaiko plano kota horren gainetik duen solairua da.

Sestra gaineko solairutzat hartuko dira, ondorio guztietarako, sabaiko forjako goiko aldeko edozein puntu espaloiko edo lurreko sestratik metro batera edo gehiagora duten erdisotoak.

Erabilerearen berezko ezaugarrien arabera izango da garaiera librea, betiere gutxienez 240 cm-koa izanik; solairuaren garaiera, berriz, gutxienez 265 cm-koa izango da.

Behe solairua: eraikitako azalaren ehuneko berrogeita hamar (%50) baino gehiago eraikinaren erreferentzia kotan duen solairua da.

Solairua: beheko solairuaren sabaiko forjaren gainetik dagoen solairua. Solairuaren garaiera librea erabilerearen eta zona edo lur motaren ezaugarrien arabera izango da.

Atikoa: eraikin bateko azken solairua. Eraikitako azalera beste solairuena baino txikiagoa izaten da, eta eraikinaren gainerako fatxada planoetatik bereziak izaten ditu fatxadak.

Estalkipea: azken solairuaren forjaren goiko aldearen eta estalki makurreko eraikuntza elementuen beheko aldearen arteko solairua da.

Herri erabilera eta jabariko lurra. Plan partzial honetan halakotzat jotako lurra, Burgeluko Udalarri kargetatik libre lagatzen zaiona.

Erabilera eta jabari pribatuko lurra. Ordenantza hauek arautzen dituen hirigintza eragiketa egin eta gero halakotzat geratzen dena, lurzati-orubeak bide publikoari begira duen aurrealdetik zenbatuta (hortik atzera izan behar da eraikuntza).

Nahitaezko lerrokadura. Nahitaezko lerrokaduratzat joko da oinplanoan eraikuntzaren forma zehazten duena.

1-2.- II. KAPITULUA.- LURZORUAREN HIRIGINTZAKO ARAUBIDEA

1-2.1.- 4. ordenantza. Lurzoruaren kalifikazioa

Ordenantza hauen eremu den AÑUAKO SAUR-1 sektorea eratzen duen eta urbanizatzeko egokia den lurzoruak bizitokia du erabilera orokor.

Ondokoak dira Plan Partzialean ezarritako erabilera xehatua, izaera publikoaren edo pribatuaren arabera:

Erabilera eta jabari pribatua:

Bizitegiak: Lurzati-orubea.

Erabilera eta jabari publikoa:

Espazio libreen sistema:

- Berdeguneak

Haurrentzako jolastokia

gizarte ekipamendua.

Edificabilidad. Es el coeficiente señalado en la Norma para cada uso y suelo en particular, el cual se aplica al suelo bruto para obtener la máxima superficie edificable. Se expresa en m² suelo edificable/m² suelo de parcela bruta.

Ocupación. Es el coeficiente señalado en las Ordenanzas Particulares del Plan, el cual se aplica al suelo neto para obtener la máxima superficie de la parcela-solar que puede ocuparse con la edificación. Se expresa en m² de edificación/m² de parcela neta.

Altura máxima. Es la longitud vertical máxima que puede alcanzar la edificación, medida desde la rasante natural del terreno hasta la cara superior del forjado de techo de la última planta habitable. Se expresa en metros (m).

Plantas. Es toda superficie horizontal practicable y cubierta, acondicionada para desarrollar en ella una actividad.

La regulación de las Normas Subsidiarias considera los siguientes tipos de plantas en función de su posición en el edificio:

Sótano: Se entiende por planta sótano aquella en que más de un cincuenta por ciento (50%) de la superficie edificada, tiene su techo por debajo de la rasante de la acera o el terreno.

La altura libre no será inferior a 240 cm., ni la altura de piso inferior a 265 cm. y en los cuelgues estructurales 210 cm.

Semisótano: Es aquella en la que más de un cincuenta por ciento (50%) de la superficie edificada, tiene el plano de suelo inferior a la cota de rasante natural del terreno, y el plano de techo, por encima de dicha cota.

Los semisótanos cuya cara superior del forjado de techo se encuentre en cualquiera de sus puntos a distancia mayor o igual de un metro respecto de la rasante de acera o terreno, se consideran a todos los efectos plantas sobre rasante.

La altura libre exigida será función de las condiciones propias del uso, con mínimos absolutos de 240 cm. para la altura libre y 265 cm. para la altura de piso.

Baja: Planta que en más de un cincuenta por ciento (50%) de su superficie edificada es coincidente con la cota de referencia del edificio.

Piso: Planta situada por encima del forjado de techo de la planta baja. El valor de la altura libre de planta de piso se determinará en función del uso y de las condiciones particulares de la zona o clase de suelo.

Ático: Última planta de un edificio, cuando su superficie edificada es inferior a la normal de las restantes plantas, y sus fachadas se encuentran separadas del resto de los planos de la fachada del edificio.

Bajo cubierta: Planta situada entre la cara superior del forjado de la última planta y la cara inferior de los elementos constructivos de la cubierta inclinada.

Suelo de uso y dominio público. Es el suelo así declarado en este Plan Parcial que es objeto de cesión libre de cargas y gravámenes al Ayuntamiento de Elburgo.

Suelo de uso y dominio privado. Es el que permanece como tal después de la operación urbanística que regulan estas Ordenanzas, contada desde el frente a vía pública de la parcela-solar, tras la cual debe situarse la edificación.

Alineación obligatoria. Se considera alineación obligatoria, aquella que determina en planta la forma de la edificación.

1-2.- CAPITULO II.- RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

1-2.1.- Ordenanza 4ª. Calificación del suelo

El suelo Apto para Urbanizar que constituye el S.A.U.R.1-AÑUA, ámbito de estas Ordenanzas, tiene como uso global el residencial.

Los usos pormenorizados previstos en el Plan Parcial, según carácter público o privado, son los siguientes:

Uso y dominio privado:

Residencial: Parcela-solar.

Uso y dominio público:

Sistema de espacios libres:

- Zonas verdes

Área de juego y recreo de niños

Equipamiento social

Lurzoruaren kalifikazioetariko bakoitzak, jabari pribatua edo publikoa izan, araubide juridiko bat edo beste izango du. Jabari publikoa izanez gero, lurzoru hori Burgeluko Udalari laga beharko zaizkio kargak, nahitaez.

1-2.2.- 5. ordenantza. Lurzati-orubea

Plan partzialeko antolamendu orokorraren planoan grafikoki zehaztutako forma eta dimentsioa izango ditu lurzati-orubeak.

Lurzatiak, gutxienez, 700 m² izango ditu eta 20 metro diámetro zirkunferentzia bere barne hartzeko gai izan beharko du.

1-2.3.- 6. ordenantza. Eraikinen tipologia

Eraikinen tipologia: familia bakarreko etxebizitza bakartua.

1-2.4.- 7. ordenantza. Eraikigarritasuna

Bizitegiatarako: aprobetxamendu taularen arabera, lurzatietak gehienezko batez besteko eraikigarritasuna 233,03 m²c da.

1-2.5.- 8. ordenantza. Familia bakarreko etxebizitzetatik mugetarinoko distantzia

Eraikinetik aurreko, atzeko eta alboko mugetaraino, gutxienez, hiru metro egongo dira. Hiru metro horietan ezin izango da ez sotorik, ez beste edozein eratako eraikin edo instalaziorik eraiki.

1-2.6.- 9. ordenantza. Eraikinen altuera eta solairu kopurua.

Altuera, gehienez: BS+1 izango da.

Erlaitzerainoko altuera, gehienez, 7 metrokoa izango da fatxada guztietan, erdigunetik neurtuta, lurzatiaren barrualdeko behin betiko sestreraino.

Estalkipeko solairua bizitzeko modukoa balitz, eraiki daitekeen azalera dagokionez, metro eta erditik gora duen inguruetako azalera baino ez litzateke zenbatuko.

Eraikigarritasunari dagokionez, behe solairuko garajeak ez dira zenbatuko, baldin eta etxebizitzako koefizientea 30 m²c baino gutxiago bada.

Erdisotoko solairuetan, baldintza orokorretan ezarritakoari egingo zaio kasu.

Erlaitzerainoko altuera eta erdisotokoa neurtzeko era, baldintza orokorren arabera izango da, eta eraikinaren fatxada guztietan.

1-2.7.- 10. ordenantza. Erabilera eta jabari publikoko luraren eraikigarritasuna.

BERDEGUNEAK

Azalera: 938,79 m²

Baimendutako erabilerak: aisiarako eta atsedenerako Baimendutako eraikinak: musika kioskoak, pergolak eta abar. Gehienezko altuera: 3 m.

HAURRENTZAKO JOLASTOKIA ETA ATSEDENLEKUA

Azalera: 382,26 m²

Baimendutako erabilerak: haurrentzako jolastokia Baimendutako instalazioak: atari zabaleko jokoak (zabuak)

EKIPAMENDU AREA

Azalera: 1.020,01 m²

Baimendutako erabilerak: herri ekipamendua Gehienezko eraikigarritasuna lur gainean: 233,03 m² c Hegalkinerainoko gehienezko altuera: 3,50 m Sestraren ginetik gehienez egin daitekeen solairu kopurua: 1 Bideetarainoko distantzia: 3 m Mugetarainoko distantzia: 3 m

1-3.- III. KAPITULUA.- ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA

1-3.1.- 11. ordenantza. Berariazko baldintzak

Eraikuntzarako berariazko baldintzak Ordezko Arauetako orokorrak berak dira: barne garaierak, lokal bakoitzaren azalera, eskailera, estalkipea eta abar.

1-3.2.- 12. ordenantza. Baldintza estetikoak

Tratamendua librea izango da, konposizio orokorri eta materialei dagokionez.

1-3.3.- 13. ordenantza. Familia bakarreko etxebizitza

Lurzatiaren gutxienezko azalera eta gehienezko batez besteko eraikigarritasun parametroak beteko dira.

Eraikin osagarritzat lorategietarako txabola laguntzaileak onartuko dira. Txabola horiek ezin izango dute hamar metro koadro baino gehiago eduki.

El régimen jurídico al que están sometidos cada una de las calificaciones del suelo deriva de su propio carácter de dominio privado o público y en este caso, con obligación de su cesión de cargas y gravámenes al Ayuntamiento de Elburgo.

1-2.2.- Ordenanza 5ª. Parcela-solar

La parcela-solar tiene forma y dimensión según se determina gráficamente en el Plano de Ordenación general del Plan Parcial.

La superficie de parcela mínima no será inferior a 700 m², y que en ella pueda inscribirse una circunferencia de 20 metros de diámetro.

1-2.3.- Ordenanza 6ª. Tipología edificatoria

La tipología edificatoria es de vivienda unifamiliar aislada.

1-2.4.- Ordenanza 7ª. Edificabilidad

Edificabilidad residencial: según cuadro de aprovechamiento la edificabilidad media máxima de cada parcela es de 233,03 m²c.

1-2.5.- Ordenanza 8ª. Separación a linderos viviendas unifamiliares

La edificación tendrá una separación mínima 3 metros medidos desde la línea de fachada para linderos frontales, laterales y testeros. En dicho espacio queda prohibida la construcción de sótanos o cualquier tipo de construcción o instalación.

1-2.6.- Ordenanza 9ª. Altura y número de plantas de la edificación.

La altura máxima será de PB+1.

La altura máxima de cornisa será de 7 mts. en todas sus fachadas medida en sus centros con referencia a las rasantes definitivas interiores de la parcela.

La planta bajocubierta, si fuera habitable, computa su superficie en la edificabilidad, a partir de una altura libre de 1,50 mts.

Los garajes en planta baja no computan edificabilidad, hasta un máximo de 30 m²c. por vivienda.

En los casos de plantas semisótano se estará a lo dispuesto en las condiciones generales.

El modo de medir la altura a cornisa y de semisótano lo será conforme a las condiciones generales y en todas las fachadas de la edificación.

1-2.7.- Ordenanza 10ª. Edificabilidad del suelo de dominio y uso público

ZONAS VERDES

Superficie 938,79 m²

Usos permitidos Recreativo-Esparcimiento Construcciones permitidas Kioscos de música, pérgolas, etc. Altura máxima 3 m.

ÁREA DE JUEGO Y RECREO DE NIÑOS

Superficie 382,26 m²

Usos permitidos Uso lúdico-infantil Instalaciones permitidas Juego al aire libre (columpios)

ÁREA DE EQUIPAMIENTO

Superficie 1.020,01 m²

Usos permitidos Equipamiento público. Edificabilidad máxima en superficie 233,03 m² c. Altura máxima al alero 3,50 m. número Máximo de plantas sobre rasante 1. Separación mínima a viales 3 m. Separación mínima a linderos 3 m.

1-3.- CAPÍTULO III.- RÉGIMEN DE LA EDIFICACIÓN

1-3.1.- Ordenanza 11ª. Condiciones particulares

Las condiciones particulares para la edificación se remiten a las generales de las Normas Subsidiarias tanto en lo que se refiere a las alturas interiores, superficies de cada local, escalera, bajo cubierta, etc.

1-3.2.- Ordenanza 12ª. Condiciones estéticas

El tratamiento será libre, en cuanto a composición general y materiales.

1-3.3.- Ordenanza 13ª. Vivienda unifamiliar

Se respetará siempre el parámetro de superficie mínima de parcela y la edificabilidad media máxima.

Como edificación complementaria se permitirán casetas auxiliares de jardín de una superficie no superior a 10 metros cuadrados.

1-3.4.- 14. ordenantza. Itxiturak

Lurzatiaren itxitura librea izango da. Horma, sarbidekoa, metro bikoia izan daiteke. Horma horren beheko metro erdia itsua izan daiteke eta gainerakoa landarez, sarez, hesi metalikoz edo horien konbinazioz egina.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko apirilaren 21a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

Iragarkiak**IDAZKARITZA NAGUSIA**

2.957

Diputatuen Kontseiluak 2004ko maiatzaren 5eko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.

- Foru Dekretuak:**NEKAZARITZA SAILA**

- 36/2004 Foru Dekretua, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Nekazaritzarako laguntzak arautzen dituen planari buruzko irailaren 11ko 94/2001 Foru Dekretuaren 60.1 artikuluaen bigarren paragrafoa aldatzen da.

- Erabakiak:**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

- 319/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekin izenpetu beharreko lankidetzak hitzarmena berresten duen foru arau proiektuak onartzen dira. Foru arau proiektu horiek Arabako Lurralde Historikoan 2004tik 2008ra azpiegitura hidraulikoak eraikitzea, 6/2004 konpromiso kreditua (23.530.431,16 euro) sortzea eta 4/2004 kreditu gehigarria (2.120.558,05 euro) sortzea eta presako prozedura bidez izapidetu dezaten Arabako Biltzar Nagusietara bidaltzea dute helburu.

- 320/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 8/2004 kreditua gaitzeko espedientea eta Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 30/2004 kreditua gaitzeko espedientea onartzen dira. Zenbatekoak, hurrenen hurren, 5.196.020 euro eta 355.756,13 euro.

- 321/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 31/2004 kreditua gaitzeko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 2.120.558,05 euro.

- 322/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 33/2004 kreditua gaitzeko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 15.559,47 euro.

- 323/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 34/2004 kreditua gaitzeko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 364.982,76 euro.

- 324/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 7/2004 kreditu gehigarria (364.982,76 euro) sortzeko foru arau proiektua onartzen da, baita ere proiektu hori Biltzar Nagusietara bidaltzea izapidetua (presako izapidetaren bidez) izan dadin.

- 325/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 10/2004 kreditu transferentziari buruzko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 250.688,40 euro.

- 326/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 53/2004 kreditu transferentziari buruzko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 18.000 euro.

- 327/2004 Erabakia, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoaren 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko 54/2004 kreditu transferentziari buruzko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 2.756 euro.

1-3.4.- Ordenanza 14ª. Cerramientos

El cerramiento de parcela será libre, pudiendo alcanzar la parte opaca de muro una altura de 0,50 m en los frentes de parcela al vial de acceso, el resto hasta 2,00 m, será de elementos vegetales, malla, valla metálica o combinado de estos.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2004.- El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

Anuncios**SECRETARÍA GENERAL**

2.957

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el 5 de mayo de 2004.

- Decreto Foral:**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA**

- Decreto Foral 36/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que modifica el segundo párrafo del artículo 60.1 del Decreto Foral 94/2001, de 11 de septiembre, regulador del Plan de Ayudas al Sector agrario alavés.

- Acuerdos:**DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

- Acuerdo 319/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba los Proyectos de Norma Foral de ratificación del Convenio de colaboración a suscribir con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la construcción de Infraestructuras Hidráulicas en el Territorio Histórico de Álava en el periodo 2004-2008; de creación de crédito de compromiso número 6/2004 y de crédito adicional número 4/2004, por importes respectivos de 23.530.431,16 euros y 2.120.558,05 euros, y la remisión de este último a las Juntas Generales de Álava para su tramitación por el procedimiento de urgencia.

- Acuerdo 320/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba los expedientes de habilitación de crédito número 8/2004 del Presupuesto del Instituto Foral de Bienestar Social del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, y el de habilitación de crédito número 30/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, por importes respectivos de 5.196.020 euros y 355.756,13 euros.

- Acuerdo 321/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el expediente de habilitación de crédito número 31/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, por importe de 2.120.558,05 euros.

- Acuerdo 322/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el expediente de habilitación de crédito número 33/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, por importe de 15.559,47 euros.

- Acuerdo 323/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el expediente de transferencia de habilitación de crédito 34/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004 por importe de 364.982,76 euros.

- Acuerdo 324/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el Proyecto de Norma Foral de crédito adicional 7/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004 por importe de 364.982,76 euros, y la remisión a las Juntas Generales para su tramitación por el procedimiento de urgencia.

- Acuerdo 325/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el expediente de transferencia de crédito número 10/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, por importe de 250.688,40 euros.

- Acuerdo 326/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el expediente de transferencia de crédito número 53/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, por importe de 18.000 euros.

- Acuerdo 327/2004, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba el expediente de transferencia de crédito número 54/2004 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2004, por importe de 2.756 euros.